ASTEKO GAIA: ERAKUSKETA INDUSTRIALA

# Arrasate PRESS

2001.eko otsailaren 23a
530. zenb.



## Aratusteen zoramena

Zapatuan hasi eta martitzenera arte

# Osasun Gida

**AKUPUNTURA**
- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

**DERMATOLOGIA**
- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

**ERREUMATOLOGIA**
- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

**FISIOTERAPIA**
- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

**GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA**
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

**LOGOPEDIA**
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77

**MASAJEAK**
- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

**ODONTOLOGIA**
- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

**OPTIKA**
- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

**ORTOPEDIA**
- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

**OSASUN-DIAGNOSTIKOAK**
- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

**OSTEOPATIA**
- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

**PSIKOLOGIA**
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

**TRAUMATOLOGIA**
- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ☎ 943 79 44 22

**UROLOGIA**
- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ☎ 943 79 44 22

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 943 71 23 91

## urteurrenak

### Istripua Amaten

■ **54. zenb.**
*(1990-3-02)*

Martin Ibabe aramaioarra hil zen lanistripu baten ondorioz. Martinek 64 urte zituen, eta istripua Amat kooperatibak Menditxebarrin duen galbanizaziorako plantan gertatu zen. Berau izan zen Amaten historian gertatutako lehen heriotza.

### Udalako Ingurugiro Eskola

■ **54. zenb.**
*(1990-3-02)*



Arrasateko Udalak urtebete lehenago adierazi zuen Udalako Ingurugiro Eskola berritzeko asmoa. Guztira, 35 milioiko aurrekontua izan zuen eskolak; Foru Aldundiak 25 milioi jarri zituen eta gainontzekoak, Arrasateko Udalak.

### Patinetez josita

■ **54. zenb.**
*(1990-3-02)*



Gaur egun, monopatinak daude modan, eta Olentzero aurten ez da oso originala izan, baina orain 10 urte patineteak ziren boladan zeudenak. Orduko aratuste egitarauaren barruan antolaturiko patinete erakustaldian, makina bat neska-mutiko hurbildu zen Zaldibarrera.

### Irasuegi, espetxeratua

■ **54. zenb.**
*(1990-3-02)*

Epailearen aginduz, Iñigo Irasuegi intsumiso arrasatearra atxilotu zuen poliziak Ulgorren lanean ari zela. Gero, Ferroleko epaile militarrak, Alcala Mecoko espetxe militarrean bete beharreko kartzela zigorra ezarri zion.

## besteek esana

« Ez dago agintaldia ondo hastea baino ezer hoberik, eta George Bushek indar eta adimen erakustaldia egitea erabaki du. Urtarrilaren 8an 150.000 marine jaurti zituzten paratxutaz hegazkin estatubatuarrek eta Besaiden daude akanpaturik. Badirudi operazioaren arrazoia honakoa dela: Arrasateko Sebero Altube plazako uso batek horzka egin ziola atzamarrean Kentuckyko turista gazte bati; ondorioz, turista hau odolez blai eta atzamar zati bat zintzilik zuela ospitalera abiatu zen korrika. Bertan 10 egun eman zuen zain itxarongelan eta atzamar zatia belaunean josi zioten mosto botila batekin anestesiatu ostean (kolpeka noski!). Bushek argi utzi du ez duela demokraziari eta askatasunari egindako erasorik onartuko eta Arrasateri ahaztuko ez duen lezioa ematea erabaki du.

**PUTZ aldizkaria**
*(2001eko otsaila-martxoa)*

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Kazetariak**: Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maite Rementeria. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Arrasate Press.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## aurkibidea


- Lehen begiratua . . . . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . . . 4
- Inkesta . . . . . . . . . . . . . . 5
- Astearen errepasoa. . . . . . 6
- Orain eta hemen . . . 8/9/11
- Txutxumutxuak . . . . . . . . 12
- Asteko gaia **Industria erakusteko "museo txikia". . . . . 16/17**
- Zaldibar areto futbola. . . . . . . . . . **18**
- Kirolak jokoan. . . . . . . . . **19**
- Eskola-kirola. . . . . . . . . . **20**
- Kulturaren txokoa . . . . . . . . . . **23/24**
- Uhinetan barrena . . . . . . **25**
- Foto zaharra . . . . . . . . . . **26**




## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................... 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera .... 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan............ egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera..... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak ....... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea.......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............. 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................. 900 40 05 23
.................... 943 79 78 44
.................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ............... 943 79 12 22
PESA................. 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

## MEZAK

**San Joan parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 09:00 (gaztelaniaz) |
| | 11:00 meza nagusia (euskaraz) |
| | 12:30 (elebiduna) |

**San Frantzisko eliza**

| Larunbata | |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (gaztelaniaz) |
| | 11:00 meza nagusia (euskaraz) |
| Igandea | 12:30 (gaztelaniaz) |
| 09:00 (euskaraz) | 19:00 (gaztelaniaz) |

**Uribarri parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 11:30 (euskaraz) |
| | 12:30 (gaztelaniaz) |

**San Andres eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (elebiduna) |
| | 11:00 (euskaraz) |
| | 12:00 (gaztelaniaz) |
| | 13:00 (gaztelaniaz) |

**Santa Teresa eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:30 (gaztelaniaz) |
| | 11:30 San Isidron (euskaraz) |
| | 12:30 (gaztelaniaz) |

**Santamañako eliza**

| Jaiegun bezpera eta larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (gaztelaniaz) | 12:00 (gaztelaniaz) |

## nortasun agiri **berriak**

Datorren eguaztenean, hilak 28, 2.441etik 2.546ra bitarteko zenbakiak dauzkatenen nortasun agiriak berrituko dituzte. IMIko egoitzan egingo da, Arrasate Pasealekuan. 09:45ean hasiko dira lehenengo zenbakiekin.

## mobilizazioak

Asteburuan, euskal presoen eskubideen aldeko hainbat mobilizazio egingo dira. Otsailaren 23an, 19:30ean, EHk deitutako manifestazioa izango da Seber Altuben, eta gero, kale bilkura. Otsailaren 24an, 19:00etan, Gestorek deitutako manifestazioa egingo da leku berean.

## yoga **ikastaroak**

Yoga ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak apirilaren 4a bitartean. Argibide gehiagorako edo izena emateko, deitu 943 79 35 76 edo 943 79 66 98 telefonoetara, gaueko 9etatik aurrera.

## kintoen **batzarrak**

Martxoaren 3an, 1945eko kintoek ospakizuna egingo dute. Izena emateko, deitu Daniel "Ante" Uribarreni. Egun berean, 46koek izango dute: deitu Agustin Akizuri edo Santos Zeziagari. Martxoaren 10ean, 1934an jaiotakoen txanda izango da; izena ematea Bengoa tabernan egin behar duzue. Bukatzeko aipatu, hilaren 24an, 1938an jaiotakoen ospakizuna egingo dela: Angel Balantzategi, Juan Jose Gonzalez, Pepe Jimenez edo Abel Lopez de Munaini deitu izena emateko.

## gizarte taldeei **dirulaguntzak**

Gizarte arloan lan egiten duten elkarteei udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak jakinarazi die, dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela. Argibideak Udaletxean.

## ekinen **batzarra**

Ekin Emakumeak elkarteak batzar nagusia egingo du martxoaren 1ean, Pablo Uranga kaleko egoitzan, 19:00etan.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Egubakoitza, 23**
• Morales, Araba etorb.

**Zapatua, 24**
• Azkoaga, Ferrerias

**Domeka, 25**
• Azkoaga, Iturriotz

**Astelehena, 26**
• Korkuera, Aranbarri

**Martitzena, 27**
• Irizar, Erguin

**Eguaztena, 28**
• Amezua, Santa Marina

**Eguena, 29**
• Zabala, Zarugalde

CIM
HIZKUNTZAK

CAMBRIDGEko AZTERKETAK
2001, EKAINEKO DEIALDIA

Matrikulatzeko epea:
Otsailaren 22tik martxoaren 13ra arte.

Informazio gehiago gure bulegoetan.

Arrasate: Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 71 20 55

Oñati: Olakua, 14
Tel.: 943 71 60 00

# Zer deritzozu Arrasateko kultura eskaintzari?

*AEDk herriko kultura eskaintzaren gaineko gogoeta egin du*



**Eloi Marteatxe**
**(41 urte)**
**Langilea**

Txarra, Monterron eta Amaia ez dira behar bezala aprobetxatzen, eta auzoetako kultura-etxeak kartetan jokatzeko erabiltzen dira.



**Mireia Baz**
**(14 urte)**
**Ikaslea**

Zinema emanaldien eta erakusketen falta nabari dut.



**Oihana Garcia**
**(15 urte)**
**Ikaslea**

Nire ustez, nahikoa dago.



**Maider Idigoras**
**(26 urte)**
**Langilea**

Nahiko eskasa da, baina askotan, ekitaldiak daudenean herriak ez du behar bezala erantzuten.



**Mari Karmen Mendizabal**
**(60 urte)**
**Etxekoandrea**

Jende gazteak eskaintza ona dauka; guk, ez horrenbeste.



**Jesus Mari Urrutia**
**(32 urte)**
**Langilea**

Kanpoan izan nahiz luzaroan, hortaz, ezin dezaket askorik esan.



**Aitor Etxabe**
**(33 urte)**
**Langilea**

Euskal kultura bultzatu beharko litzateke; jaietan, batez ere.



**Aitor Murgoitio**
**(40 urte)**
**Langilea**

Lehengo kultura galdu egin da: baserrikoa, alegia.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

## USTEAK USTE

### *Imajina ezazu (I)*

**Pentsa maiatzean gaudela. Arratsalde luzeak, eguraldi epela, enarak eta loreak... Hauen polenak eragindako alergiak, ikutu errealista gure bada...**

**Imajina ezazu. Ostiral arratsaldea da, eta buzoira zoaz aldizkarien bila. "Aiba! GOIENKARIA bakarrik etorri dok/n! Potoloago, hori bai. Baina ARRASATE PRESSik ez. Zelan dok/n ba hau?"**

**GOIENKARIA zabaldu eta lehen orrietan ez duzu apartekorik ikusi. Erdian, baina, kirol kontuak amaitu eta Goienka2a espero duzun tokian, zas! Press erraldoia dator, betikoaren antzeko azalarekin, eta egunkariaren tamainakoa. Eta barruan ohiko atalak, oso oraingoen antzera. Hamasei orri inguru. Pare bat edo Aramaiokoak. Eta erretratu handiak, jendea samur ezagutzeko.**

**Irakurri duzu. "Tira! Lehen beste kontu bajatok/n! Gehitxuago be bai, igoal." Press zahar bat hartu eta konparatu egin dituzu. "Itxura batien, etxagok/n mila alderik. Hurrengoetan ikusi biher... Beno, erretratu haundixena, hori gauza ona dok/n!" (jarraitzeko).**

**Mikel Irizar**

## astea bi hitzetan

**■ Autobus berria**

Egubakoitzean, MCCko Irizar enpresak autobus modelo berria aurkeztu zuen Donostian. Irizar PB da autobusaren izena, eta enpresak 3.000 milioi pezeta inbertitu ditu. Ibilgailu bakoitza 26 eta 35 milioiren artean salduko du. Irizarko arduradunen esanetan, Century izeneko aurreko modeloa baino erosoagoa da, baina, batez ere, karrozeria berria seguruagoa da.

**■ Alecopen webgunea**

Alecop enpresak webgunea berritu du, Dankak egindako proiektu baten oinarrituta. Urtarrilean kaleratu zuten eta oraindik zenbait atal bukatzeke daude, baina orria bisita daiteke.

**■ Diru gutxiago**

Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru gutxiago emango die probintziako herriei. Guztira, 258 milioi pezeta gutxiago. Ondorioz, Mondragoeri ere diru gutxiago egokituko zaio: hain justu, bederatzi milioi pezeta gutxiago.

**■ MUren hitzarmena Frantziako Tolosako unibertsitatearekin**

Zapatuan, Mondragon Unibertsitateak eta Frantziako Tolosako Paul Sabatier unibertsitateak hitzarmena sinatu zuten. Helburua da bi unibertsitateen arteko elkarlana sendotzea, eta horri esker, ikasleen eta irakasleen arteko trukaketa eta zientzia eta teknologia arloan lan bateratua bultzatzea.

Baina, bereziki, irakasleen arteko trukea bultzatu gura dute. Jabier Retegi, MUko errektorearen esanetan, "aspaldi hasi ginen Tolosako unibertsitatearekin harremanetan, badira 30 bat urte. Eta tarte horretan, emaitza izugarri onak lortu ditugu. Gure oraingo helburu nagusia da irakasleen arteko harremana estutzea, hango irakasleak hona ekartzea eta hemengoak hara eroateko elkarlan sendoa izatea. Azken baten, helburua da hango esperientzia gureganatzea eta hemengoa eurekin konpartitzea".

Tolosako unibertsitatean 28.000 ikasle daude, 200 ikerkuntza irakasle eta 108 laborategi.

**■ Josu Uribetxeberria presoa jipoitu dute**



Senide batzuek salatu dutenez, joan den egubakoitzean, bost funtzionariok Mondragoeko Josu Uribetxeberria preso politikoa jipoitu zuten.

Josu Uribetxeberria Cadizko Puerto de Santa Maria kartzelan dago. Hango presoek salatu dutenez, egubakoitzean, Uribetxeberria dutxara eroan zutenean, dutxak zikinak zeuden. Presoek adierazitakoaren arabera, kartzelako funtzionarioek dutxak garbitzeko esan zioten mondragoetarrari, eta Josuk uko egin zion, berak ez zituela zikindu eta garbitzea berari ez zegokiola esanez. Orduan, bost funtzionario berarengana joan eta ostikoka hasi zitzaizkion, burua ere kolpatuz. Gertaeraren ondorioz, Josu Uribetxeberria isolamendura eroan zuten, eta hori guztia salatzeko, Puerto de Santa Mariako presoek gose greba mugagabeari ekin diote.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Udalaitz, S.L.
Musakola auzoa, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25
Audi A4 berria.
Mugimenduaren arkitektura




UGARTE
AROZTEGIA
K21
KALITATEA
Erregistratutako Enpresa zk. 1/00/025
1 Maila









- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

# Amaia antzokia

## Otsailak 25, igandea

19:30etan

SARRERA: 1.500 pezeta
(Gazte txartelarekin: 1.200 pezeta)

TXARTELDEGIA:
18:00etatik aurrera zabalik




Arrasateko Udala Kultura Saila

# Martxoaren 8rako guztia gertu

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak dagoeneko prest dauka martxoaren 8rako egitaraua. Martxoaren 1ean ekingo diote, eta hurrengo asteetan eskaintza zabala emango dute aukeran.


Asteartean egin zen aurkezpena udaletxean.

Zinema atalean, adibidez, bost film eskainiko dituzte Amaia antzokian: *Cuando vuelvas a mi lado, Agnes Brown, Sexo por compasión, Onegin eta Vírgenes suicidas*. Martxoaren 4an, *Cómeme el punto* izeneko antzezlanaz gozatzeko aukera izango da. Horrez gain, hainbat hitzaldi ere egingo dituzte: Zer egin sexuak beldurtzen gaituenean (Arantza Urkaregi feministak), Emakumea eta indigena izatea (Mundukidek) edo Emakumea eta kartzela (preso ohia eta senidea).

**HIJAS DEL SOL**

Martxoaren 8an, manifestazioa izango da arratsaldeko zazpietatik aurrera, eta hori guztia gutxi balitz, martxoaren 9an kontzertua izago da Musakolako kiroldegian. Hijas del sol, Faltrikeira eta Txanbela taldeek joko dute. Sarrerak salgai Hiren eta AEK-Erdun.

## Presoen alde

Astean, presoen aldeko mobilizazioak izan dira, *Burujabetza da pakea, presoak herrira* izeneko kanpainaren barruan. Horren harira, asteburuan ere mobilizazio gehiago deitu dituzte. Gaur, egubakoitza, manifestazioa zen egitekoa Seber Altuben, eta gero, plazan bilkura. Biharko beste bat deitu du EH alderdiak, Seberren, 19:00etan. Eta Donostian etzi Senideak eta Gureak taldeen batzarrerako gomita ere egin du. Aurrera begira, berriz, hilean astebetez mota horretako ekimenak egingo dituztela iragarri du AABBk, eta hileko azken egubakoitzean bilkura egiteko deia ere egin dute.

## Orain, zuhaitzak

Alde Zaharra oinezkoendako egokitzeko lanen barruan, dagoeneko jarri dituzte jarlekuak bai Arbolapetan eta baita Seber Altube plazan ere. Are gehiago, Arbolapetako lanak bukatuta daude, hortaz, hemendik aurrera Seber Altube eta inguruak zolatzen eta txukuntzen segituko dute.

Lan horiek bukatzear daude, eta gero, Maisu Aranori dagozkion lanak egiten hasiko dira. Bien bitartean, bi plazetako zuhaitzak ipintzen hasiko dira.



## Aukera zabala

Arrasateko kultura eskaintza zabala da aukera aldetik, baina gabezia batzuk ditu. Adibidez, beharrezkoa da kultura eskaintza batuko duen euskarri bat sortzea, herritarrei informazioa osoa emateko. Horrez gain, elkarteen arteko harremana indartzea ere komenigarria da, horrek sorkuntza mailan kulturaren biziberritzea ekarriko duelako. Horixe da, besteak beste, herriko kultura errealitatea aztertzeko Monterronen zapatuan elkartu ziren taldeek ondorioztatu dutena.

beinke

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.
Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

GRUPO ARKAUZ 1950-2001





ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
**ARRASATE**

ARKAUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
**ARETXABALETA**









ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
**ARETXABALETA**

expert

ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
**ARETXABALETA**

FAGOR

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

***Eskerrik asko emandako konfiantzagatik***

# Arrasaten ez da belodromorik eraikiko

Belodromoa egitea garestia dela uste du Hirigintza batzordeak, gerora begira eman behar zaion erabilpenerako, garestiegia. Hori, eta beste arrazoi batzuk kontuan hartuta, belodromorik ez egitea proposatu zuen atzoko osoko bilkuran Hirigintza batzordeak.



Atletismoko pistak, futbol zelaia, errugbi zelaia eta atseden leku bat eraikiko dituzte.

### GAINERAKOA, BAI

Hori bai, beste guztia aurrez ikusitakoaren arabera egingo da: atletismoko pistak, futbol zelaia, errugbi zelaia eta atseden leku bat eraikiko dituzte.

Horrez gain, oraingo zerbitzuak hobetzeko lanak ere egingo dituzte kanpoko eta barruko igerilekuetan, aldageletan, Antoñako jokalekuan, tenis pistan eta gimnasioetan, esaterako. Eta, oro har, kiroldegiaren egitura goitik behera konponduko dute. Dagoeneko, horretan ari dira.

Lan horietarako 1.400 bat milioi pezetako inbertsioa aurrez ikusi dute.

Gainera, Ekologistak Martxan taldearen alegazioa ere onartu dute. Talde horrek landaretza babestea eskatu zuen, eta errekastoa ez estaltzea.

### BESTELAKO GAIAK

Baina, kiroldegiaz gain, bestelako gaiak ere landu zituen atzo udalbatzarrak. Besteak beste, Juan Jose Saenz EHko zinegotzi berria izendatzea proposatu zuten.

### MOZIOA

Bukatzeko, ETAren azkenengo hilketak direla-eta, EAJ alderdiak mozio bat aurkeztu zion udalbatzarrari. Jeltzaleen mozioan, Ramon Diazen heriotza eta hilaren 13an Madrilen zapuztutako atentatua gaitzetsi zituzten. Bestetik, ETAri indarkeria jarduerak bertan behera uzteko exigitu zioten eta gure herriak bizi duen gatazka konpontzeko bide bakarra elkarrizketa, oinarri demokratikoak eta euskal gizartearen borondatea begirunez betetzea dela esan zuten jeltzaleek.

Aipatu, informazioa idazterako orduan osoko bilkura egin barik zegoela. Eguenean zen egitekoa osoko bilkura.

# Ludoteka berria

Oraingo astean, udalak Okendo kaleko ludoteka egokitzeko proiektua onartu du, eta horrekin batera, lan horiek adjudikatzeko lehiaketa publikoa ere deitu du. Lehengo Gureak zinema zegoen tokian egingo dute ludoteka.

Ia 27 milioi pezeta pasatxoko inbertsioa onartu dute lanotarako.

# Elkarrik babesa eskatu du

Aurreko martitzenean, Elkarriko bozeramaile Jonan Fernandezek hitzaldia egin zuen Monterronen. Ia 100 lagun hurbildu ziren Elkarrik egin gura duen bake konferentziaren nondik norakoen berri jasotzeko. Gizartearen esku hartzea beharrezkoa dela-eta, Jonan Fernandezek kolaboratzaile izateko dei egin zuen. Ekitaldia amaitutakoan, hainbat herritarrek azaldu zuten kolaboratzaile izateko nahia. Arrasaten egindako hitzaldia oso positibotzat jo zuen Jonan Fernandezek.


Uda honetan, ikastaroak atzerrian

Zure seme-alabak ingelesa ikas dezaten atzerrira bidaltzea pentsatzen ari zara?



CIM HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Etorri datorren asteazkenean, hilak 28, arratsaldeko 6'30etan, Arrasateko egoitzan, CIM-HIZKUNTZAK **GURASOENTZAKO** emango duen **HITZALDI INFORMATIBORA.**

Araba Etorbidea, 4. • Tel.: 943 71 20 55 • 20500 Arrasate - Gipuzkoa • E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • http: www.cim-idiomas.com

## ZORIONAK, ISIDRO!

Adiskide giro bikainean ospatu zuen Isidro Gonzalezek 87. urtebetetzea joan den zapatuan. Gurea zinemako aretozain izan zelako da ezagun Isidro. Zorionak, geure partetik ere, eta alaitasun horrekin segi dezazula!



## ANARTZ AGIRRE ETA XABI URZELAI



Anartz Agirre eta Xabi Urzelai dira GOITBko eta Arrasate Pressko kirol arduradun berriak. Anartzek Goienasport saioa egingo du, eta Xabik, ostera, herriko kirol kontu guzti-guztiak landuko ditu Arrasate Pressen. Biek egin izan dute lan Arrasate Telebistan eta GOITBn. Ongi etorri, biei!

## BERBALAGUNAK, OTEIZA ETA ZAPARRADA



Euria, haizea eta hotza izan zuten Zahar-Berrikoek Arantzazun, Oteizaren apostoluak eta Pietatea ikustera joan zirenean. Zapatuan, baina, Donostiara joan ziren Oteizaren erakusketa ikustera, eta giro hobea, behintzat, egin zuen.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Comercial ARPE
Ile apaindegirako artikuluak
Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

EDERRA

OSTANTZ

KAJOI


BACARDI®

RON 5 AÑOS


01-02-23

ARRASATE-JAIAK

# Zatoz inauterietan Arrasateko Tabern


**IRATI TABERNA**
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

**Jai Zale Taberna**
Olarte 37, Behea 20500 Arrasate Tel.: 943 796 792

**Plus Ultra taberna**
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

**ESKIÑA taberna**
Ondo ibili Inauterietan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

**KIMETZ**
Kazuelatxoak, ogitartekoak eta pintxoak
Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

Aupa aratusteak!
Aupa Arrasate!
**OKORETEGI KAFETEGIA**
Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62



**ALDAPE**
Taberna
Espezialitatea: menua-karta
Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

**Lora bar**
Aupa arrasatearrak!
Aupa Inauteriak!

**PUB HAIZEA**



etara!!


BRANKA TABERNA
Inauterietan ondo pasa!
Zarugalde 1 • Arrasate • Tel.: 943 79 21 13

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

TOKI EDER
KAFE TABERNA
-pintxoak aukeran
-Kazuelatxoak
-Bokadiloak
Bñez D.K.,11 (San Andres auzoa)
943 79 31 45

BIONA TABERNA

CAFÉ
IAMAI
KONTZEZINO KALEA 14
943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

RUMBA TABERNA
ONDO PASA INAUTERIAK!!
Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

Monte taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

ETXERAT TABERNA
ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE
EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

DISCO-BAR
GURELEKU
Disco-Bar Gurelekuk
ARATUSTE DIBERTIGARRIAK
opa dizkizu.
Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711768

• Astean zehar eguneko menua
• Aste bukaeretan plater konbinatuak
ANBOTOSTE TABERNA
Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 30

# Industria erakusteko

**11 urte badira Xabier Bengoak, 90. urtean Kultura batzordeburu izan zenak, Mondragoen museo industriala egin behar zela proposatu zuela. Bere hitzetan, museoak helburu bat bete nahiko luke: "zenbait urtetan zehar geure herriari horren ospe handia eman dion serrailagintza zelabait berreskuratzea, hau da, galtzen ez uztea". Norbaitek aintzat hartu, eta apurka-apurka ideia lantzen hasi ziren. Orain dela bost urte, Isabel Arzamendik, historialaria eta museo hezitzaileak, txosten bat egin zuen, eta proiektuaren zergatiak eta eginbeharrak zehaztu zituen.**



Etorkizunean egin gura duten museoaren egitura Cerrajerako galdategiaren egitura zaharra izango da.

Oraingoz asmo bat besterik ez da, baina apurka-apurka garatzen ari dena. Etorkizunean Arrasaten museo industriala ireki nahi da, eta asmo hori gauzatuz joan dadin, orain erakusketa bat antolatzeko lanean ari dira. Juan Ramon Garaik, Lan eta Garapen zinegotziak du erakusketa antolatzeko ardura. Juan Ramonek esan digunez, Cerrajerako bigarren solairuan ipiniko dute erakusteta, eta izenak dioen moduan, herrian historia industrialaren garapena erakutsi gura dute. Horretarako, udalak dagoeneko eskuratu ditu zenbait makina, IFAMekoak eta lehengo Cerrajerakoak gehienak, eta Lasa pabilioian daude gordeta. Erakusketa noiz izango den zehazterik ez badago ere, berandu barik erakusketa zabaldu nahi dute proiektu honetan burubelarri lanean ari direnek.

### HISTORIA, IDAZTEAR

Makina zaharrenak 1920koak dira; berrienak, 60koak. Izan ere, "gure asmoa da 1850etik gaur arteko historia industriala idatzi eta etor



Cerrajeran egiten ziren gurpilak eskuratu ditu udalak erakusketarako. Eta gurpil horiek egiteko makinatzarrak ere ikusgai izango dira.

# "museo txikia"


Cerrajerako bonbona pilatxo bat ere ikusi ahal izango dugu.

museoan erakustea".

Lan hori zatika egingo du udalak: aurrenik, 1920-1970 urte bitarteei dagokien Historia batzen dabiltza. Horixe izango da aurtengo erakusketaren oinarria, eta horren harira, historialari bat kontratatzeko lehiaketa publikoa deituko du udalak uztail-irail aldean. Historialariaren lana izango da urte horien arteko historia industriala jaso eta idaztea. Gero, liburuxka bat kaleratu gura du udalak.

## MUSEO TXIKIA

Bestalde, erakusketa industrialari dagokionez, otsailaren 26an museoetan aditua den langile bat kontratatuko du udalak, erakusketa antola dezan. Bitartean, jadanik jakina da erakusketa Cerrajerako 2. solairuko 800 metro koadroko areto baten izango dela, eta herriko eta inguruotako makina, argazki, dokumentu eta, oro har, herriko ondare industrialeko tresnak berreskuratuko dituztela erakusketarako.

Juan Ramon Garaik esan bezala, orain arte bi lantegi daude proiektuan: lehengo Cerrajera eta IFAM; baina, "beste batzuk ere sartu beharko dira, bereziki, herriko lantegiak. Zelan? Ba, artxiboak, idatziak eta bestelakoak erakusten edo makinak, argazki zaharrak eta antzekoak uzten. Herritarrak ere proiektuaren partaide izan beharko dira, batek baino gehiagok gauza mordoa izango du eta museoan erakusteko".

## DIRU KONTUAK

Hau guztia lortzeko, udalak aurtengo aurrekontuetan 33.400.000 pezetako partida onartu du. Hortik, 26 milioi pezeta erakusketa industrialerako bideratuko dira: erakusketa antolatzeko, teknikaria kontratatzeko, lokala konpontzeko, makinak erosi eta txukuntzeko... Dagoeneko, Gobernu Batzordeak oraingo astean onartu du bost milioi pezetako partida bat. Diru horrekin, erakusketa industriala jasoko duen Cerrajerako aretoa txukunduko dute.

Beste bi milioi pezeta inguru historialaria kontratatzeko izango dira, eta beste 5 milioi, ostera, museo industrialaren proiektua zehaztu eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Horretarako, maiatz inguruan etxe espezialista bat kontratatuko du udalak.

Edozelan ere, udalak ezin ditu bere gain hartu mota horretako ekimen batek dituen kostuak, eta beste erakunde batzuen laguntza eskatuko du.: "Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara jotzeko asmoa dugu, eta jakina, ekimen pribatuak ere onartuko ditugu".

Azken baten, museo txikitxoa izango da erakusketa, hain justu, etorkizuneko museoa abian jartzeko bidea. ■

**Ubane Madera**


IFAMetik ekarritako kopiatzeko makina hau ere Lasa pabilioian dago gordeta.



Bonba hidrauliko zahar bat ere badago gordeta, zelakoak ziren erakusteko.

# Batzorde antolatzailea

Arrasate Kirol Proiektua aurrera eramateko orduan, ikastetxe bakoitzeko koordinatzaileak talde bakoitzeko monitoreekin egon eta ekintza guztiak antolatzeaz arduratzen dira. Eurak dira proiektuaren egunerokotasunean murgildurik, barruan lanean ari direnak.

Lan hori kirol proiektuan sartuta dauden agente guztien aurrean azaltzen dute hilean behin, eta aurrera eramango dituzten ekintzen berri ere ematen dute. Berri ematea Eskola Kiroleko Batzorde Antolatzailearen aurrean egiten dute. Horrela, koordinazio taldeak eskola kiroleko egoeraren berri eman eta hainbat proposamen eramaten ditu, ikastetxe bakoitzeko ordezkari banaren, elkarteetako ordezkarien, eta Arrasateko eta Aramaioko udaletako Kirol eta Hezkuntza teknikarien aurrean; agenteok osatzen dute, koordinatzaileekin batera, Batzorde Antolatzailea.



**Hilean behin egiten dute batzarra kirol proiektuko kideek.**

Batzordea hilero batzen da Arrasateko Udaletxean, eta eskola kirolaren jarraipena egin eta hartu beharreko erabakiak adosteaz arduratzen da. Egin diren eta egiteko dauden ekintzez informatzeaz koordinazio taldea arduratzen da, eta erabakiak batzordeak berak hartzen ditu.

## MENDI IRTEERA

Domekan, hilak 25, kirol proiektuko bosgarren irteera egingo da: Bidaniatik Ernio-ra. Eguraldia lagun, izugarrizko parajeez gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Irteera, ohi bezala, Garibaitik izango da goizeko zortzi eta erdietan.

## Asteburuko hitzorduak

Otsailak 24, zapatua

### IGERIKETA

*Musakolako kiroldegian*

**9:45**
San Frantzisko Xabier (Santa teresa) 1
San Frantzisko Xabier (Santa teresa) 2
San Frantzisko Xabier 2
San Viator D

*Musakolako kiroldegian*

**10:45**
San Frantzisko Xabier U
San Frantzisko Xabier A 1
San Viator B
San Viator A

*Musakolako kiroldegian*

**11:45**
Musakola
San Frantzisko Xabier C 1
Merced
Erguin
Aramaio

### AURREKIROLA (BENJAMINAK)

### ARETO FUTBOLA

*Gazteluondon*

**9:45** S.F. Xabier D - San Viator B
**10:30** S.F. Xabier A - S.F. Xabier C
**11:15** S.F. Xabier B - S.F.Xabier U

*Musakolan*

**10.30** Musakola - S.F. Xabier ST
**11:15** Merced B - Aramaio
**12:00** San Viator A - S.F. Xabier E
**12:45** Eeguin - Merced A

### MULTIKIROLA (ALEBIN)

**NESKAK**

### MINIESKUBALOIA

*Iturripen*

**10:15** Erguin - S.F. Xabier U 1
**11:00** S.F.Xabier A - S.F. Xabier U 2

**MUTILAK**

### MINIESKUBALOIA

*Gazteluondon*

**9:30** Aramaio - S.F. Xabier B
S.F. Xabier A 2 - San Viator A 1
**10:15** Eerguin - San Viator A 2
**12:00** Musakola - S.F. Xabier A 1
**12:45** Merced - S.F. Xabier U

### 7KO FUTBOLA (ALEBINAK)

BAILARAKO KANPORAKETA ALDIA
*Zapatuan Musakolan*
**15:30** Erguin-San Viator - JOMA

### SASKIBALOIA (INFANTILAK)

*Otsailaren 24an, zapatua*

**NESKAK**

**10:00** San Viator B - Almen
**11:00** San Viator A - S. F. Xabier

**MUTILAK**

**10:00** Ipintza - San Viator

### FUTBOLA

*Garibaien*

**10:00** Mariaren Lagundia - Arrasate
**9:00** La Merced - S. F. Xabier

**MUTILAK**

*Ostiralean*
**18:00** La Merced - Aranzadi
*Larunbatean*
**11:00** S.F. Xabier - AOZA 1

## FUTBOLA
### Gazteak, bikain

Aurreko asteburuan, erregional mailako mutilek emaitza ona lortu bazuten ere, gazte mailako mutilen lana azpimarratuko dugu.

Sailkapen nagusian lehen tokian daude, eta asteburu honetan ere 1-5 irabazi diete Zestoako gazteei. Badirudi etxeko taldeak harrobi ona duela. Ez dago gaizki, dena beharko dugu eta.

## SASKIBALOIA
### Bolada txarra

Arrasateko taldea ez dabil fin aspaldian; izan ere, zapatuko porrotarekin, bost dira segidan galdutako partiduak.

Deustuko La Salle taldeak ondo aprobetxatu zituen etxeko taldeak defentsan egin zituen hutsegiteak, eta Landerren mutilak azken laurdenean txukun aritu baziren ere, ezin izan zuten norgehiagoka irabazi.

## ATLETISMOA
### Markak hobetzen

Aurreko asteburuan pista estaliko Euskadiko txapelketa izan zen Anoetan, eta Unai Sarabiak eta Jonathan Perezek emaitza onak lortu zituzten. 200 metroetako lasterketan, Unaik 22"42 egin zuen, eta promes mailan urrea eskuratu du. Jonathanek 4 metro eta 50 zentimetroko jauzia egin zuen, eta promes mailan zilarra eskuratu du.

## KARATEA
### Euskadiko txapeldun

Erik Martin da Euskadiko karate txapeldun berria. Domekan jokatu zen txapelketa Bilbon, eta kumitean, 70 kilo azpiko txapelketa bereganatu du. Denbora luzean lesionatuta egon ondoren txapelketara aurkeztea erabaki zuen, eta argi dago goi mailan jarraitzen duela. Datozen asteetan Espainiako txapelketara joateko probak izango dira, gauzak ongi ateraz gero bertan izango da. Emango dizuegu Eriken berri.

## PILOTA
### Euskadiko txapeldun

Aurreko asteburuan, arrasateko nagusiek 9 eta 22 irabazi zien Gasteizko Zarama taldeari. Euskal Ligako azken partida jokatu zuten eta nagusitasun osoz irabazi zuten partida.

Txapelketa amaiturik arrasatearrek sailkapenaren erdialdean amaitu dute. Kontutan izanda maila honetan hasiberriak direla, pilotariek balorazio positiboa egin dute.

Gaur, hilak 23 arratsaldeko 7etan Euskal Ligako Finala Uakape Pilotalekuan.

Zapatuan, hilak 24, goizeko 11etan, Udaberri Sariko partidak jokatuko dira. Lehenengo mailako Jubeniletan, Arrasatek Añorgaren aurka jokatuko du. Nagusiek, lehengo mailan, Añorgaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

## Emaitzak

**FUTBOLA**
- **Lehen erregionala**
  Urola 2 - Mondra 8
- **Lehenengo gazteak:**
  Zestoa 1 - Mondra 5

**SASKIBALOIA**
- **Nagusiak**
  Kenci Arrasate 83 - La Salle Deusto 91
- **Juniorrak**
  Goierri 93 - Kenci Arrasate 49

**ESKUBALOIA**
- **Nagusiak**
  Arrasate 19 - Leizaran 18
- **Gazteak**
  Leizaran 23 - Arrasate 23
- **Kadeteak**
  Elgoibar 22 - Arrasate 14

## Jokatzekoak

**ERRUGBIA**
- **Seniorrak**
  Arrasate - UPV Bilbo
  zapatuan 4retan

**FUTBOLA**
- **Lehengo Gazteak**
  Mondra - Aretxabaleta
  zapatuan 4retan

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# zaldibarko *areto futbola*

## Emaitzak

**A taldea**

Txeyenex 1 - Makanaki FC 0
YK Azkena 5 - IKP 2
Goma2 7 - AL Ion 5
Aurrera Bolie 3 - Serengeti 0
AC Surcos 3 - Leya 3
Bikain Akad. 11 - Kom.Alpargat 4
Lasagabaster 1 - The Pippol 0
Katxiporra 1 - Txapime Dribling 9
Betrayer 2 - Kanpanzar Harrobia 3

**B taldea**

Rayo Aldeano 6 - Usotz Potroak 1
AKTA 5 - Alai Gozokiak 2
KJ Basati 2 - Full Duplex 7
Kamasutra 5 - AT Celaya 1
Fragel Gol 12 - Sas T 1
Txotx 5 - Abocajarro 3
EPEH 1 - Iriztu 15
DKB Kobate 9 - New Makai 0
Etxerat 5 - Irati STS 7

## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Lasagabaster | 11 | 9 | 1 | 1 | 54 | 26 | **19** |
| YK Azkena | 11 | 8 | 2 | 1 | 41 | 27 | **18** |
| Txapime Dribling | 11 | 8 | 1 | 2 | 55 | 27 | **17** |
| Aurrera Bolie | 11 | 8 | 1 | 2 | 49 | 23 | **17** |
| Komando Alpargat | 11 | 7 | 1 | 3 | 48 | 41 | **15** |
| AC Surcos | 11 | 6 | 3 | 2 | 45 | 41 | **15** |
| Bikain Akademia | 11 | 5 | 4 | 2 | 58 | 39 | **14** |
| Goma2 | 11 | 5 | 3 | 3 | 56 | 41 | **13** |
| IKP | 11 | 6 | 1 | 4 | 42 | 47 | **13** |
| Serengeti | 11 | 5 | 3 | 3 | 35 | 32 | **13** |
| Katxiporra | 11 | 5 | 1 | 5 | 42 | 56 | **11** |
| Kanp. Harrobia | 11 | 4 | 1 | 6 | 30 | 42 | **9** |
| Leya | 11 | 2 | 4 | 5 | 28 | 34 | **8** |
| Makanaki FC | 11 | 2 | 1 | 8 | 15 | 21 | **5** |
| Betrayer | 11 | 1 | 2 | 8 | 43 | 56 | **4** |
| Txeyenex | 11 | 2 | 0 | 9 | 22 | 50 | **4** |
| AL Ion | 11 | 1 | 1 | 9 | 33 | 78 | **3** |
| The Pippol | 11 | 0 | 0 | 11 | 7 | 22 | **0** |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Etxerat Taberna | 11 | 9 | 1 | 1 | 78 | 29 | **19** |
| Iriztu | 11 | 9 | 1 | 1 | 55 | 17 | **19** |
| AT Celaya | 10 | 7 | 1 | 2 | 43 | 33 | **15** |
| Rayo Aldeano | 11 | 6 | 2 | 3 | 65 | 39 | **14** |
| Fragel Gol | 10 | 7 | 0 | 3 | 48 | 32 | **14** |
| Kamasutra | 11 | 6 | 2 | 3 | 48 | 34 | **14** |
| Irati STS | 10 | 6 | 1 | 3 | 55 | 31 | **13** |
| Pep.Inserso.com | 10 | 6 | 0 | 4 | 37 | 28 | **12** |
| Usotz Potroak | 10 | 5 | 1 | 4 | 44 | 22 | **11** |
| DKB Kobate | 11 | 4 | 2 | 5 | 41 | 44 | **10** |
| KJ Basati | 10 | 4 | 1 | 5 | 48 | 41 | **9** |
| Akta | 11 | 4 | 1 | 6 | 43 | 42 | **9** |
| Full Duplex | 10 | 4 | 1 | 5 | 37 | 36 | **9** |
| EPEH | 10 | 4 | 1 | 5 | 29 | 50 | **9** |
| Txotx | 11 | 3 | 1 | 7 | 22 | 51 | **7** |
| Alai Gozokiak | 10 | 2 | 1 | 7 | 27 | 49 | **5** |
| New Makai | 10 | 2 | 0 | 8 | 17 | 68 | **4** |
| SasT | 11 | 1 | 1 | 9 | 16 | 69 | **3** |
| Abocajarro | 10 | 1 | 0 | 9 | 29 | 67 | **2** |



### ANTOLATZAILEAK FIN-FIN

Batek baino gehiagok izango du antolatzaileen gainean zerbait esateko, baina hutsak egitekotan, lanean dabilenak egiten ditu, eta gazteek lana, behintzat, gogoz egiten dute. Astelehenero elkartzen dira gaztetxean, hortaz, zerbait esateko baduzue, gaztetxera jo. Oraingo astean, atsedena: Driblin, IKP, Etxerat, Serengeti eta Leya taldeek.

### DENBORA, ERRESPETATZEKO

Jakina da partiduak epaitzea gutxik dutela gustuko, eta are gutxiago jokatu behar duten taldeak egurra banatzen duten horietakoak badira. Hala ere, txapelketan jokatzeko baldintza batzuk onartu ziren, eta epaitzea horietako bat zen; hortaz, gogorarazi partidako zati bakoitzak 25 minutu dituela, eta denbora hori errespetatzeko dagoela.

## Hurrengo partidak / 12. jardunaldia

**Otsailak 24, zapatua**

| Zaldibar | | Epailea |
|---|---|---|
| 9:50 | Lasagabaster - AC Surcos | Kanpanzar |
| 11:00 | YK Azkena - Kanp.Harrobia | Lasagabaster |
| 12:00 | Sast T - AT Celaya | YK Azkena |
| 13:00 | Rayo Aldeano - Fragel Gol | AT Celaya |
| 14:00 | Txeyenex - Bikain Akabemia | Fragel Gol |
| 15:00 | Irati STS - Usotz Potroak | Bikain |
| 16:00 | Txotx - Kamasutra | Irati STS |
| 17:00 | Abocajarro - Full Duplex | Kamasutra |
| 18:00 | EPEH - KJ Basati | Abocajarro |

**Iturripe A**

| | | |
|---|---|---|
| 14:50 | Betrayer - Goma2 | Katxiporra |
| 16:00 | Katxiporra - Aurrera Bolie | Betrayer |

**Iturripe B**

| | | |
|---|---|---|
| 14:50 | DKB Kobate - AKTA | Alai Gozokiak |
| 16:00 | Iriztu - Alai Gozokiak | DKB |

**Otsailak 25, domeka**

**Zaldibar**

| | | |
|---|---|---|
| 11:50 | Pepelus.com - New Makai | K.Alpargat |
| 13:00 | K.Alpargat - AL Ion | Pepelus |




Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78


¿Pentsatu duzu aurtengo mozorro-jantzia?
Behar duzun guztia daukazu
Casa Ceciaga
Aukera zabala egindako mozorroetan
haurtxoentzat
haurrentzat
neska-mutikoentzat
helduentzat
Oihalak, karetak eta osagaiak
Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel•Fax: 79 12 62

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

**Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.**

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza

*Izcue Iruzun*

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

**Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66**

## Leihoak

**ARGI PLASTIK**

***PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.***

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**

*PVC • Aluminioa RPT*
*Poliuretanoa • Bitarikoak*

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea,2-behea • **ARRASATE**
Tel./Faxa: 943 79 11 35

## Elektrizitatea

**ARANZABAL KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

***ARRASATE***
*Elektrizitatea*

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak**
**Gasa • Berogailuak**

EGIA iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

**APAIN**
**MARGO ETA APAINKETA**

**Matiena, 3-1**
**Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17**

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

## Giltzak




• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**
**Tel./Fax: 943 79 76 03**

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora

JON ALONSO (IDAZLEA)

# «Irakurtzea, ona? Noiz, zer eta zertarako den arabera»

**Saiakera, nobela eta artikulu egile dugu Jon Alonso idazle ezaguna: *Idiaren eraman handia, Camembert helburu*... Oraingoan, baina, idazle izatetik irakasle lanak egitera pasako da egile nafarra. Izan ere, literatura tailerra zuzenduko du Arrasaten, martxoaren 2tik aurrera, Gazte Sailaren eskutik. Alonsok aitortu digunez, oso atsegin du jarduera hori.**



Euskaldunon Egunkaria

**— Zein helburu du tailerrak?**

— Literaturara hurbiltzea da, ipuina ardatz bezala hartuta. Irakurri egingo da, baita zer edo zer idatzi ere, aipuak egin… baina, hori bai, ipuina izango dugu abiapuntu, erraz irakurtzen delako eta literaturaz jarduteko egokia delako.

**— Zure ustez, ipuinak ospea galdu du?**

— Aspaldiko kontua da. Ipuinak idazten dituzten idazleek uste dute ez zaiela kasurik egiten, eta irakurle askok uste du ipuina, laburra delako, edozeinek egin dezakeela. Nire ustez, ipuina genero bat da, nobela edo poesia bezala. Badaude autore asko –Cortazar, Borges, Monterroso…– batik bat ipuinak idatzi dituztenak, eta idazle handiak izan direnak.

**— Idatzi ere egingo duzue… Idazten ikasi egin daiteke?**

— Ikasi egin daiteke, eta ikasi egiten da, behintzat, neurri bateraino. Gero, norberak emango du eman gura duena. Batzuk trebeagoak izango dira, gogo handiagoa izango dute… baina, idazten, ikasi egiten da.

**— Zuk zeuk zer edo zer ikasi duzu tailer horiei esker?**

— Bai. Niretako ikastaro hauek barreratik beste aldera pasatzea bezala dira, jendearekin bat egiten dudalako, eta besteak, irakurleak, literatura zelan bizi duen ikusten dudalako. Idaztea eta idatzitako hori konpartitzea, biak dira politak.

**— Noizbehinka entzuten dugu irakurtzeak baduela alde txarra ere…**

— Irakurtzea ona dela oso uste zabaldua da, baina baita eztabaidagarria ere. Ona da, bai… baina, noiz, zer eta zertarako irakurtzen den arabera. Norberak jakin behar du zertarako irakurri gura duen, eta horren arabera, irakurketa moldatu. Ez badituzu interesak eta irakurketa parekatzen, irakurtzea txarra ere izan daiteke. Footing-arekin konpara dezakegu: nire helburua ez bada profesionala izatea, zertarako egingo ditut egunero 15 kilometro? Irakurketan, berdin.

**"Footing-ean, nire helburua ez bada profesionala izatea, zertarako egunero 15 kilometro? Irakurketan, berdin"**

## aste gazte

**■ DIRULAGUNTZAK**

• "Censolar"en eskutik, eguzki energiako instalatzaile-proiektista titulua ateratzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

**■ LANA**

• Irungo Udalerako, antolakuntza eta kalitate teknikaria eta jarduera teknikaria behar dira. Epea: martxoak 5.

• Eguaztenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma.. Gura baduzu, pasa zaitez bulegotik.

**■ IKASTAROAK**

• Zeramika ikastaroa, Loixe Taldearen eskutik. Martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara.

• Euskal dantzak, Gazteria Sailak Lore Gazteakekin elkarlanean antolatua, 10 urtetik gorakoendako. Martxoaren 2tik aurrera, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30etara. Izena ematea: 1.000 Pta.

**■ LEHIAKETAK**

• Irungo Udalak umorezko tira lehiaketa antolatu du. 16-30 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, gaztelaniaz nahiz euskaraz, zuri-beltzean edo koloretan. Epea: maiatzak 25.

• Ikus-entzunezkoen arloko hainbat lehiaketa:

- Ciudade de Vigo bideo festibala. Epea: martxoak 3.
- Kantabriako Viernoles herriko bideo eta gidoi lehiaketa. Lanak: 20 minututik beherakoak, eta 25 urtetik beherako gazteek egindakoak. Epea: apirilak 15.
- Natura (ingurumena, itsasoa, mendia, abentura) gaitzat hartuta, zinema lehiaketa. Epea: abuztuak 20.

**Argibideak:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**

## Aratusteak

**Zapatua, 24**

**18:00** AEDko Zahar-Berri taldeak antolatutako II. torrada lehiaketa, herriko plazan.

**Domeka, 25**

**19:30** Golden Apple Quartet.

**Martitzena, 27**

**17:00** Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoek emanaldia eskainiko dute plazan.

**18:00** Samasiku Txarangaren irteera.

**19:00** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien kalejira.

**19:30** Eguzki taldeak alaitutako dantzaldia, herriko plazan.

**23:30** Sardinaren hiletaren segizioa eta erreketa, plazan.

# Golden Apple Quarteten kontzertua



Golden Apple Quartet kantari taldeak *Sin Cuatro Instrumentos*, euren bigarren diskoa, aurkeztuko du Arrasaten domeka honetan, otsailak 25. Amaia antzokian izango da emankizuna, arratsaldeko 19:30ean, eta sarrerak 1.500 pezetatan salduko dira.

### MUSIKA ETA UMOREA

Hamabi urte dira Golden Apple laukotea osatu zela, baina hasi zireneko printzipioei eusten jarraitzen dute Enrique Otxoa, Eduardo Errondosoro eta Loiola Garmendia donostiarrek eta Cruz Maria Larrañaga debarrak. Hortaz, lehenik eta behin, musika aurkituko dugu, elkarrekin bat egiten duten lau ahotsetan gorpuztua. Abestien tratamenduan ondo sumatzen da hamabi urteotako eskarmentua.

Eta musikarekin bat, umorea, Golden Apple Quartet-en beste ikurra. Sotil, dotore eta oso lagunkoi bezala definitzen du taldeak berak erabiltzen duen umorea.

*Sin Cuatro Instrumentos* izeneko ikuskizunak oso harrera ona izan du, bai kritikoen, bai eta publikoaren aldetik ere.

## XII. Andaluzia Eguna

Al-Andalus elkarteak XII. aldiz ospatuko du Andaluzia Eguna, Andaluziak bere autonomia estatutua onartu zuela gogoratzeko.

Asteburuan hasiko dira ospakizunak. Zapatuan, playback jaialdia izango da, 22:30ean, euren egoitzan.

Otsailaren 28an, Andaluziaren Egunean, 20:00etan hasiko dira ekintzak. Lehendakariak agurra esango du, eta ohorezko ardoa hartuko dute bazkideek. Datorren egubakoitzean jarraituko dute ospakizunek.

## Liburutegi argitsuagoa



Fluoreszente indartsuak ipini berri dituzte udal liburutegian. Mahaietako lanparatxoak kendu dituzte, itzalak sortzen zituztelako. Hurrengo, apaletan ipiniko dituzte argiak, liburuen tituluak hobeto ikusi ahal izateko.

## XIV. Arrasate Lehiaketak

Hona hemen, zelakoa izan den AEDren Arrasate Literatura Lehiaketatako parte hartzea: 87 ipuin (12 urte, 13 lan; 13 urte, 25; 14 urte, 17; 15-16 urte, 26; 17 urtetik gora, 6); 35 olerki (14 urte arte, 7 lan; 15-16 urte, 15; 17 urtetik gora, 13); 26 bertso-paper (14 urte arte, 14 lan; 15-16 urte, 5; 17 urtetik gora, 7); 35 komiki (14 urte arte, 28 lan; 15-16 urte, 3; 17 urtetik gora, 4); euskalki grabazio bat, 17 urtetik gorako kategorian; eta hiru irrati erreportaje (17 urte arte, 2 lan; 17 urtetik aurrera, bat).

S. CARRASCAL S.L.
**Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



# Astelehenetan, kirola nagusi

## Jokoz kanpo Astelehenero 21:00etan



Arrasate Irratian kirolak ere badu bere tartea. Astelehenero, arratsaldeko zortzietatik aurrera, herriko kirolak izaten dira nagusi uhinetan. Alazne Ostolazak eta Iraia Aginagaldek gidatzen dute ordubeteko saioa. Saioa osatzeko, herriko kirolariak gonbidatzen dituzte eta asteburuko zeingehiagoken errepasoa egiten dute. Zelan ez, jokaldi onenak eta talde bakoitzaren egoera ere aztertzen dute. Hori guztia, musika lagun.

## kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoak 3: **Dance Party** (**2** sarrera)
Martxoak 4: **Annihilator + Nevermore + Soilwork + Rawhead rexx** (sarrera **1**)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** ......................
**Tel.:** ...........................
**Zein Kontzertu?** ....................

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

## "TRINI" ETA "PURI" GOGORATUZ

Orain dela urte batzuk, bi pertsonaia zituen Arrasate Irratiak: "Trini" eta "Puri". Izen horiek zituzten pertsonaiek, baina ahotsa Nerea Zallok eta Kaittin Allendek jartzen zieten. Barre egiteko aukera paregabea izango da biekin datorren eguaztenean, goizeko 10.15etik aurrera.

## SEXUAZ TERTULIAN

Datorren eguenean sexuaz arituko gara Arrasate irratiko autobusean. Sexologia zerbitzuko Maitena Zubia eta Ana Oiarzunekin batera, homosexualitate eta heterosexulitateaz jardungo dugu. Zuk, entzule, baduzu iritzia emateko aukera. Hona hemen telefonoa: 943 71 17 31.

arrasate **irratia**
FM 107.7

| ASTELEHENA - OSTIRALA | |
|---|---|
| 09:00 | **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.** |
| 09:55 | **Eguneko hitzorduak.** |
| 10:00 | **Igo autobusera I.** |
| 11:00 | **Albistegia.** |
| 11:15 | **Igo autobusera II.** |
| 12:30 | **Agenda, eskelak...** |
| 12:45 | **Albistegi nagusia.** |
| 14:00-18:00 | **Errepika.** |

| ASTELEHENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Jokoz Kanpo.** |
| 21:00 | **Draxtor.** |
| 22:00 | **In Session.** |

| MARTITZENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Hi bizi hadi.** |
| 21:00 | **Jakidiplost.** |

| EGUAZTENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Binilo ordua.** |
| 21:00 | **KK2A.** |

| EGUENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Ostegun-Ero.** |
| 21:00 | **Arakatzen.** |

| EGUBAKOITZEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Planing Prest.** |
| 21:00 | **Kale Doinuak.** |

| ZAPATUAN | |
|---|---|
| 10:00 | **Bihurrikerietan.** |
| 11:00 | **Musika klasikoa.** |
| 12:00 | **Bi zoro ta zu.** |


*Dermatologia kontsulta*



*Concepcion Tamayo Dk.*
*Jesus Sampedro Madina Dk.*

Maalako Errabala, 23/2-A • ARRASATE
Tel.: 943 77 05 57

Atzeko Kalea, 6-behea • OÑATI
Tel.: 943 71 61 82

☐ ***Azaleko Gaixotasunak***

(Lagun-Aro, IQUIMESA-Adeslas, Diputazioa, Asisa, Sanitas eta Ipresa aseguruak hartzen ditugu, eta baita partikularrak ere).

☐ ***Laser tratamenduak***

- **Fotodepilazioa**
- **Mantxa marroiak**
Adinak eta eguzkiak eragindakoak.



Aspaldiko jaiak dira aratusteak. Horren adierazle dugu oraingo asteko erretratu zaharra: 80 bat urte ditu, hortaz, 1920. urte ingurukoa da.

Aurrean ditugun modeloak, ostera, Maragarita Etxaburu eta Ines Mercader "Txantxotenak" dira, koinatak. Ikusten den moduan, bata pierrot bezala dago jantzita, eta bestea, hungariar.

Berriemaileak kontatu digunez, oso jai handiak izaten ziren orduan aratusteak. Lehiaketa izaten zen Casinon, eta jende gaztea elkartu eta esku hartzen zuen.

Martitzenean, esaterako, jaieguna izaten zen egun osoan 1915-1923 urteen artean, eta, besteak beste, herriko banda kalerik kale ibiltzen zen aratusteetarako asmatutako pieza berezi bat jotzen. Abestia Jose Maria Uranagak egindakoa da eta Juan Arzamendik egokitutakoa.

***Argazkia :***
*A. Gonzalez Mercader.*
***Berriemaileak:***
*A. Gonzalez Mercader eta Jose Mari Urangaren artxiboa.*

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# *Berdintasuna, behingoz!*

## 2001eko Martxoak 8.

# ARRASATEKO EMAKUMEEN KONTSEILUA

CONSEJO DE LAS MUJERES DE ARRASATE

## "MARTXOAK 8" KO EGITARAUA

**Martxoak 1, eguena**
***18:30*** ERAKUSKETA
inaugurazioa ekitaldia
**Nork:** Ximena Saiter
**Non:** Harresi aretoan
***21:30*** ZINEA
*"Cuando vuelvas a mi lado"*
Gracia Querejeta
**Non:** Amaia Antzokia

**Martxoak 3, zapatua**
Goiz eta eguardian
Artisau eta baserritarren
AZOKA Seber Altube plazan.

**Martxoak 4, domeka**
***19:30*** ANTZERKIA
*"Cómeme el punto"*
Legaleon-t, antzerki taldea
Non: Amaia Antzokia

**Martxoak 7, eguaztena**
***19:00*** HITZALDIA:
*"Zer egin sexuak beldurtzen gaituenean?"*
Nork:Arantza Urkaregi, feminista.
Non: Monterronen

**Martxoak 8, eguena**
***17:00*** gazte txokoetan eta ludoteketan
guraso eta gaztetxoentzat ekitaldia:
txokolatada eta ipuin kontakizuna.
Txatxilipurdirekin.
***19:00*** EKITALDI NAGUSIA;
MANIFESTAZIOA
Portaloian.
***21:30*** ZINEA *"Agnes Brawn"*
Angelica Huston

**Martxoak 9, eguakotxa**
***22:00*** KONTZERTUA
Korrika kulturala
Hijas del Sol (Guinea Bisau)
Faltrikeira (Galiza)
Txanbela (Euskal Herria)
Non: Musakolako Kiroldegia
Sarrerak salgai Hiren eta
AEK-Erdueuskaltegian

**Martxoak 13, martitzena**
***19:00*** HITZALDIA:
*"Emakume eta indigena izatea"*
Nork: Mundukide
Non: Monterron

**Martxoak 15, eguena**
***21:30*** ZINEA
*"Sexo por compasión"*
Laura Maña
Non: Amaia Antzokia

**Martxoak 21, eguaztena**
***19:00*** HITZALDIA: *"Emakumea eta kartzela"*
Nork: presa ohia eta familiarteakoa
Non: Monterronen

**Martxoak 22, eguena**
***21:30*** ZINEA
"Onegin"
Martha Fiennes
Non: Amaia Antzokia

**Martxoak 29, eguena**
***21:30*** ZINEA
"Virgenes suicidas"
Sofia Coppola
Non: Amaia Antzokia

**ERAKUSKETA, Ximena Saiterren eskulturak**
Harresi aretoan. (Iturriotz, 35)
**Egunak:** martxoaren 1etik martxoaren 11bitartean
**Ordutegia:** lanegunetan 18:00-20:00,
eta asteburutan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

ARRASATEKO UDALA

**Emakume Saila**

| Gosaldu | Bazkaldu | Afaldu |
|---|---|---|
|  |  |  |

# Giro onenean!



# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR

**SUKALDE ERAKUSKETA** Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • **BAINU ERAKUSKETA** Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42